

Kike Diez de Ultzurrun Sagalá

## Hogeita hamar urte

**N**

ik ez nuen ezagutu. Irrati bidez entzun nuen lehendabiziko aldiz haren izena, noiz eta haren heriotzaren berri eman zutenean. Hura baino bederlatzi urte gazteagoa nintzen. 23 urtetan hil zen, 23 urtetan erail zuten, Iruñeko Orreaga etorbidean, Bigarren Zabalgunean, zezen plazatik ez urrun. Balek jende gehiago zauritu zuten; gomazko pilotakadek eta poliziaren makilakadek, zer erranik ez. Prest eta prestatuak zeuden, zezen plazan sartu eta festa leherrazteko; zezenak sartzen diren pasabide meharretik barneratu ziren, munta txikiko ika-mika politiko bat aitzakiatzat hartuta. Peña txikien atzetik sartu eta jendea (zaharrrak, gazteak eta haurrak) ezker-eskuin ederki zafratu eta gupida gabe tirokatu zuten; baina haiek ere ordaina jaso zuten.

Berehala zabaldu zen bazter guztietara poliziaren oldarraldiaren berri, baita Alde Zaharreko San Anton karrikara ere. Balkoira aterata, kalean kanpotar aunitz, beldurra aurpegian, azkar-azkar zihoazen auto bila, hiritik alde egiteko. Anaia zaharren adiskide aragoitarrak haserre bizian zeuden eta juramentuka abiatu ziren poliziaren aurka. Gaua zen, polizia bera San Antonera iritsi zenerako; halako batean, karrika guztia ke itogarriz bete, gure etxeko ataria ireki genuen eta dozena eta erdi lagun sartu ziren barnera; baziren iruindarrak, Estellerrikoak, Erriberakoak, gipuzkoarrak, madrildarrak... Izua zekarten begietan, eta kolera gorria ere bai. Erriberako bi senar-emazte adinez aurrera zihoazen, eta bi gizonak jota zeuden poliziaren jokamolde “basati” hura ikusita; ez sinesteko modukoa, erraten zuten behin eta berriz. Gauak luze jo zuten, eta beheko tabernatik txistu baten hotsa iristen zen noizbehinka, poliziak pilotak botatzeari uzten zion bakoitzean.

Egun hartan, gau hartan, Iruñean egon zenak badu zer kontu; jende guztia aski ongi oroitzen da non zebilen edo



MIKEL SAINZ

zer egin zuen. 1978ko uztailaren 8ak zauri sakona eragin zuen Iruñeko jendearengan, urteen joan-etorriak oroitzapenak lausotu baditu ere. Hura hiri osoari egindako erasoia izan zen, hiri honek gehien maite zuen gauzetako bati; Sanferminei, alegia. Halaxe ikusten dut nik, behintzat. “Begira, gauza gara mundu zabalean ezagunak diren festa hauek hankaz goratzeko; gauza gara zuen festa gogoia zapuzteko; gauza gara iruinxeme bat hiltzeko... eta ez digute deus eginen, onik aterako gara, inortxok ere ez digu ezer ere ordainaraziko”. Hura hiri baten bizinahia errotik itotzeko eta Sanferminak soka motzean lotzeko lehenbiziko saiakera izan zen; ondoko urteetan Sanferminek beren bidea egin zuten, zabal eta lokarririk gabe. 80ko hamarkadaren erditik aitzinera, ordea, gauzak aldatzen hasi ziren; ez bat-batean, koskaz koska

baizik. Hau da, ez zuten berriro polizia zezen plaza hustera igorri eta bide “demokratikoagoak” erabili zituzten: urte batean, ikurrina kendu zuten Udaltxetetik; hurrengo batean, udal dantzarietako prozesioan joatea debekatu zieten; hurrengoan, barraka politikoak edo txosnak galarazi zituzten, baita halako eta holako kontzertuak ere; kalean egiten diren hamaketakoak ere debekatzeko saiatu ziren...

Hau da, “Sanferminak bai, baina guk nahi ditugun bezala”, horixe diote udal agintariak. Eta hein handi batean erdietsi dute: haien gustuko ekitaldiak sustatu dituzte (jendea ikusle huts bihurtu nahi dute, ez dadila parte-hartzaile izan) eta halako hats itogarria erantsi diote festari. Baina zorionez, oraindik badira haiek inola ere kontrolatzen ez dituzten festa giroak, aginte taldearen atzaparretatik ihes egiten duten ekimenak. Aurten bat, bereziki; hots, German Rodriguezen omenezko ekitaldia, non eta poliziak duela hogeita hamar urte sanferminzale gazte baten bizi taupada zulatu zuen toki berean. ■

‘Sanferminak bai, baina guk nahi ditugun bezala’, horixe diote udal agintariak (...).

Zorionez, oraindik badira haiek inola ere

kontrolatzen ez dituzten festa giroak,

aginte taldearen atzaparretatik

ihes egiten duten ekimenak